

Euskadiko unibertsitateetan matrikulatutako en kopurua handitu egin da 2011/2012 ikasturtean

Master ofizialetako matrikulak % 23 handitu dira

Eustaten datuen arabera, Euskal AEko unibertsitateetan 66.472 gazte matrikulatu ziren 2011-12 ikasturtean; hau da aurreko ikasturtean baino % 1,3 gehiago. Bigarren urtea da jarraian matrikulak handitzen direna, 15 urtez gutxitsu ostean.

Lurralde-banaketari dagokionez, % 55ak Bizkaian egin zituzten ikasketak, % 31k Gipuzkoan eta % 14k Araban.

Titulartasunari dagokionez, hamar ikasletatik zortzik unibertsitate publiko bat hautatu zuten goi-mailako ikasketak egiteko. Antzeko proportzioa dago era guztietako ikasketetan, master ofizialetan izan ezik; horrelakoetan, izan ere, txikiagoa da ikastetxe publikoetako matrikulazioen proportzioa (% 62).

Graduetan matrikulatutako ikasleen kopuruak gora egin du berriro aurreko urtearekin alderatuta (% 65), urtez urte unibertsitate-ikasketen egitura berria finkatzen ari baita; horren ondorioz, gutxiago dira lehen eta bigarren zikloko ikasketak egiten dituztenak (% 30). Egun batera dauden bi ikasketa motak kontuan hartuz gero, 59.321 ikasle izan ziren guztira 2011-2012 ikasturtean, aurreko urtekoaren antzeko kopurua (% 0,32 gehiago). Graduatu ondokoetan matrikulatuek, ordea, % 10eko hazkundera izan dute master ofizialak egiten dituztenen hazkunderaren eraginez (% 23 gehiago), bere horretan mantendu baita doktoregoetan matrikulatutako en kopurua.

Matrikulatutako ikasleria, ikasketa motaren arabera. 2011-12 ikasturtea

	Guztira	Gizonak	Emekumeak	Unibertsitateak (%)	
				Publikoak	Pribatuak
Guztira	66.472	30.825	35.647	79	21
<i>1. eta 2. zikloko matrikulatutakoak</i>	<i>28.323</i>	<i>13.358</i>	<i>14.965</i>	<i>88</i>	<i>12</i>
Lizentziaturak	13.867	5.281	8.586	86	14
Arkitekturak eta Ingenieritzak	5.221	3.420	1.801	79	21
Diplomaturak	5.041	1.591	3.450	98	2
Arkitekturak eta ingeniariaritza teknikoak	4.194	3.066	1.128	93	7
<i>Graduetan matrikulatutakoak</i>	<i>30.998</i>	<i>14.264</i>	<i>16.734</i>	<i>71</i>	<i>29</i>
<i>Gradu ondokoetan matrikulatutakoak</i>	<i>7.151</i>	<i>3.203</i>	<i>3.948</i>	<i>77</i>	<i>23</i>
Master ofiziala	4.122	1.766	2.356	62	38
Doktoretza	3.029	1.437	1.592	97	3

I turria: Eustat. Euskal AEko Unibertsitate-estatistika

Gero eta emakume gehiago unibertsitateko ikasgeletan (% 54)

Unibertsitate-ikasgeletako generoaren arabera banaketak emakumeak gehiago direla erakusten du, portzentajezko 8 puntu gehiago zehazki: % 54 emakumeak dira, eta % 46 gizonak.

Emakumeak gehiago dira era guztietako ikasketetan: master ofizialetan (% 57), lehen eta bigarren zikloan (% 53), graduatan (% 54) eta doktoregoetan (% 53).

Bestalde, 30.998 ikaslek graduiko ikasketak egin zituzten, 28.323 ikaslek lehen eta bigarren ziklokoak, 4.122 ikaslek master ofizialak eta 3.029 ikaslek doktoregoko ikasketak.

Lehen eta bigarren zikloko ikasketei dagokienez, hauexek izan ziren gehien eskatutakoak: Administrazioa eta Enpresa Zuzendaritza (3.043), Industria Ingeniaritza Teknikoa (2.382), Irakasle Eskola (1.866), Industria Ingeniaritza (1.743), Enpresa Zientzietako Diplomatura (1.392), Zuzenbidea (1.195), Arkitektura (1.078), Medikuntza (1.070) eta Psikologia (973); matrikula guztien erdia izanik.


Graduei dagokienez, hauexek nagusitu ziren: Enpresa Administrazio eta Zuzendaritza (3.075), Lehen Hezkuntza (2.087), Zuzenbidea (1.985), Psikologia (1.754), Haur Hezkuntza (1.208), Ingeniaritza Mekanikoa (1.186), Negozioen Kudeaketa (867), Gizarte Lana (800), Erizaintza (748) eta Gizarte Hezkuntza (744); guztien % 47 izanik.

Gizarte eta Lege Zientzien, Ingeniaritzaren eta Arkitekturen adarretako ikasketetan egin zituzten espezializazioak graduatutako ikasleek

2011-2012 ikasturtean 12.253 gaztek lortu zuten unibertsitate-titulu bat guztira; haietatik % 60 emakumeak izan ziren.

Ikasketa motari dagokionez, 8.791ek lehen eta bigarren zikloko ikasketak burutu zituzten, 762k graduatutakoak, 2.278k master ofizialak eta 422k tesia gainditu zuten.

Ikasleen banaketa sexuaren eta adarraren arabera (%). 2011-2012 ikasturtea



Iturria: Eustat. Euskal Aeko Unibertsitate-estatistika

Euskal AEko unibertsitate-ikasleen erdia baino gehixeagok Gizarte eta Lege Zientzien adarreko espezializazioa egin zuten (% 52), ondoren Ingeniaritza eta Arkitekturakoa da gehien egindako espezializazioa (% 26). Gutxiagok egin zuten espezializazioa, bestalde, Arte eta Giza Zientzietan (% 8), Zientzietan (% 6) eta Osasun Zientzietan (% 6).

Generoari dagokionez, ezberdintasun handia dago ikasketen espezializazioan; hala, emakumeek, gehienbat, Gizarte eta Lege Zientzien barruan jasotakoak nahiago dituzte (% 61). Gizonen % 83, ordea, Ingeniaritza-Arkiteturaren eta Gizarte eta Lege Zientzien artean banatzen dira.

Oso adierazgarria da neskek Osasun Zientziak mutilek baino gehiago nahiago izatea (% 8 / % 3). Halaber, nabarmentzekoa ere bada bi sexuetan Zientzien ikasketek duten lehentasun eskasa.

Euskal AEko unibertsitateetan 5.897 irakaslek eman zituzten eskolak

Euskal AEko unibertsitateetan 8.589 pertsonak lan egin zuten 2011-12 ikasturtean; hau da, zerbitzuen sektorean lanean aritzen diren guztien % 1,4. Haietatik, 4.206 emakumeak izan ziren; % 49, alegia.

Zehazki, 5.897 irakasle izan ziren guztira, eta haietatik % 59 gizonak izan ziren; administrazio eta zerbitzuetako 2.692 langileen artean, aldiz, emakumeak % 65 izan ziren.

Informazio gehiago:

*Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
C/ Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz
Prentsa zerbitzua servicioprensa@eustat.es Tlf: 945 01 75 62
Euskal AEko Unibertsitate-estatistikari buruzko prentsa-ohar gehiago
Euskal AEko Unibertsitate-estatistikari buruzko datu-bankua*